

COMPRENSIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

Apellidos:

Nombre:

DNI / NIE:

Señale lo que corresponda:

Alumno/a **LIBRE / OFICIAL**:

Grupo / Profesor:

INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE ESTA ACTIVIDAD

- Duración: **75 minutos**.
- Debe realizar **TODAS** las tareas.
- Debe escribir sus respuestas en **la hoja de respuestas (reverso de esta página)**.
- Sólo se admiten respuestas escritas con **bolígrafo azul o negro**.
- Apague su **teléfono móvil**.
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

PUNTUACIÓN TOTAL: /20

ERANTZUN ORRIA

TAREA 1	Jarraian elkarrizketa bat irakurriko duzu. Parekatu galderak eta erantzunak.	7x1	/7 puntu
----------------	---	-----	----------

0	1	2	3	4	5	6	7
D							
✓							

TAREA 2	Testu honetan hainbat hitz kendu dira. Txertatu hitzak dagokion tokian. Bi sobera daude.	12x0,5	/6 puntu
----------------	--	--------	----------

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
B												
✓												

SOBERAN:

TAREA 3	BETIKOA. Ondorengo testutik hainbat hitz kendu ditugu. Irakurri testua eta aukeran ematen zaizkizun hitzetatik bat aukeratu. Zure aukerak erantzun orrira pasa behar dituzu. 7x1	/7 puntu
----------------	---	----------

0	1	2	3	4	5	6	7
C							
✓							

TAREA 1	Jarraian elkarrizketa bat irakurriko duzu. Parekatu galderak eta erantzunak.	7x1	/7 puntu
----------------	--	-----	-----------------

«Kanadartzat naukate hitz egiten hasten naizen arte»

Iker Tubia
BERRIA
2020-03-28

Irati Otamendi Kanadan bizi den ordiziarra etxetik ari da lanean, baina Torontoko etxetik. Hiriak eskaintzen duen anonimotasuna maite du, eta han diren etorkinen ikusgarritasuna nabarmendu du. Oraingoan, Kanadan geratuko da.

Irati Otamendi (Ordizia, Gipuzkoa, 1994) ingeniaria da, eta 2018ko abendutik Toronton bizi da (Kanada). Motxila hartu eta Argentinan bost hilabetez ibili ondoren erabaki zuen Torontora joatea, giza baliabideen ikasketak egitera. Orain praktika aldian dago, baina etxetik ari da, koronabirusa dela eta.

GALDERAK

0. Hartu diozu neurria Torontori?

1. Itzultzeko asmorik baduzu?
2. Migratzeko toki egokia da, ikusita hirian hainbeste etorkin dagoela?
3. Mugak itxita, zer sentitu duzu?
4. Nola kudeatzen dute han kultura aniztasuna?
5. Praktikak egiteko arazorik baduzu koronabirusarekin?
6. Zer kasu bitxi gertatu zaizu?
7. Zergatik joan zinen Torontora?

ERANTZUNAK

- a) Argentinan bidaiatzen gauza asko aurkitu nituen, eta han konturatu nintzen betidanik izan nuela Kanadara joateko gogo. Orain praktikak egiten ari naiz, JCM Power enpresan. Oso interesgarria da.
- b) Nahiko buruhauste: unibertsitateak erabaki zuen praktika guztiak bertan behera uztea. Nire immigrazio estatusa dela eta, ez banago ikasketak egiten, ezin dut jardunaldi osoan lan egin. Diru sarrerak erdira murriztea litzateke hori. Azkenean, salbuespenak egin dituzte.
- c) Kanadan bizitzeko baimenik ez duten guztiei itxi diete muga. Euskal Herrira joatea erabakiko banu, ezingo nintzateke berriro itzuli.
- d) Hiri hain handia izanda, erreparoa nuen, baina telefonoko aplikazio asko daude ez galtzeko. Gustatzen zait hiriak ematen duen anonimotasuna. Egunero jende mordoarekin gurutzatzen naiz, jakinda ez ditudala berriz ikusiko. Jende inguratuta bizi arren, zure lekua duzu.**
- e) Ez dakit. Baduzu aukera kultural oso-oso zabala: italiarra, judua... alde guztietako auzoak daude. Toki ona da zure herrialdeko jendea aurkitzeko, baina oso-oso garestia da. Hemen bizitzeko baimena lortzea zailagoa dela uste dut, jende gehiago dagoelako egoera berean.
- f) Denetarik dago, eta egoera bitxiak bizi izan ditut. Gehien harritu nauena da oso ikusgarria dela; oso garbi ikusten da leku askotako jende mordo dagoela. Horrek ez du esan nahi diskriminaziorik ez dagoenik.
- g) Kanadarra naizela uste dute hitz egiten hasten naizen arte, baina hemen jaio eta jatorriz atzeritarrak direnak ezberdin tratatzen dituzte. Oso garbi ikusten dira aurreiritziak.
- h) Oraingoz, ez; iruditzen zait hemen aukera gehiago dauzkadala.

TAREA 2	Testu honetan hainbat hitz kendu dira. Txertatu hitzak dagokion tokian. Bi sobera daude.	12x0,5	/6 puntu
----------------	--	--------	-----------------

GREBA HOTSAK EMAKUMEEN FUTBOLEAN.

JON TORNER ZABALA_
ARGIA
2019ko urriaren 16a

Batetik, patronala. Alegia, Espainiako emakumezkoen lehen mailako talde ia denak biltzen dituen Kluben Elkarte. Bestetik, sindikatuak, Futbolarien Elkarte (AFE) buru. Lehenbiziko hitzarmen kolektiboa litzatekeena....(0)negoziazioek ez dute fruiturik ematen, eta litekeena da sindikatuak grebara deitzea.

Klubn Elkarteak biltzen ditu lehen mailako...(1)...guztiak, Athletic, Bartzelona, eta Tacon salbu. Sindikatuak eskatu dute lanaldi erdia duten jokalariek urtean 12.000 euroko gutxieneko(2).... izatea, alegia, akordioak zehaztu lezakeen 16.000 euroko gutxieneko soldataren -lanaldi osoko kontratua duten jokalarien kasuan- %75. Klubn Elkarteak,...(3)...., ehuneko hori %50era jaitsi du, eta horrek eragingo luke futbolarien soldata 8.000 eurotan uztea.

Partzialtasuna da, hain justu, bi aldeen arteko desadostasun-iturri handiena. Beste ...(4)... batzuetan, ordea, izan dira aurrerapausoak. Amatasun baimenak, 30 eguneko oporraldia, sexu jazarpena borrokatzeko neurriak... AS egunkariko kazetaria den Alfredo Matillak artikulu honetan...(5)...ditu negoziazio-prozesuko puntu guztiak.

Urtebete daramate patronal eta sindikatuak...(6)... kolektiboa negoziatzen, emaitzarik gabe oraingoz. Asteartean hamaikagarren bilera egin dute, eta kamuts hura ere. Hargatik, badirudi gero eta aukera gehiago dagoela negoziazio(7).... beste sindikatu batzuek, greba deitzeko, nahiz eta oraingoz deus ez dagoen(8)..... AFE sindikatuak, esaterako, ez du baieztatu greba.....(9).....lukeenik.

Klubn Elkarteak balizko greba deialdia arbuiatu du, eta ...(10)... du hitzarmenak behar duela izan proiektua sendotu eta jokalarien baldintzak hobetzeko ...(11)...bat, eta ez konfrontazio-iturri. "Futbolarien baldintzak hobetuz joango dira, azken urteetan gertatzen ari den bezala, txapelketak diru-sarrerak ...(12)... dituen heinean".

- | | | |
|--------------------|---------------|---------------|
| a) adierazi | f) hitzarmen | k) puntu |
| b) adosteko | g) horregatik | l) soldata |
| c) argi | h) lortzen | m) talde |
| d) babestuko | i) mahaiko | n) tresna |
| e) esatea | j) ordea | o) zerrendatu |

TAREA 3	BETIKOA. Ondorengo testutik hainbat hitz kendu ditugu. Irakurri testua eta aukeran ematen zaizkizun hitzetatik bat aukeratu. Zure aukerak erantzun orrira pasa behar dituzu. 7x1	/7 puntu
----------------	---	----------

BETIKOA

EGUNKARIA 2020-otsaila
Iñigo Aranbarri

Moderno airea dario Ainhoa Artetaren berbaldiari. Zein egoki lotu zaion estatu plurinazionalaren(0)..... erdian Gabriel Arestik Tomas Meaberen gorazarrez idatzitako poema haren hariari: «Cierra los ojos muy suave,/ Meabe,/ pestaña contra pestaña./ Sólo es español quien sabe,/ Meabe,/ las cuatro lenguas de España».

Halatsu(1)... da tolosar sopranoa Mirentxu operaren aurkezpenean: «bertan egiten diren hizkuntza guztiek aberasten dute Espainia,(2)..... da hauek arma legez erabiltzea». Esan bezala, Jesus Guridiren obraren aurkezpenean agertu du iritzia, Madrilen. Zarzuelako Antzokian(3).... eman den lehenbiziko obra da Mirentxu. Bestela esanda, palmera bat 163 urteko basamortuan. Bai, aurreneko obra euskaraz mende eta erdi pasan. Franco mututzailea hil eta 44 urtera. Nabarmenkeria honetaz hitz erdirik ez, ordea. Zertarako garraztu elkarbizitza. Gero, arrazoiketaren erroetara jota, dena kakaztu du. Izan ere, dio bertara doan euskaldunari erraz aterako zaiola(4)..... bat Manu errotariaren alabaren amodio minak entzunda oholtza gainean, hain da euskara «goxua » eta «betikoa» obran egiten dena, «umetako hura», zirikusirik ez zirraren transmisiorako ezgauza den euskara batuarekin, «telebistako hori, nik(5)..... ezin dudana». To Aresti. Gazteleragatik halakorik adieraziko ez zukeela sinetsita, eta Artetaren beraren hizkuntza erabileran sartu gabe, betazalak betazalen kontra bildu eta hasperen egin dut. Horra zertan den itxurazko modernitatea. Tubalismoaren(6)..... hil edo biziko praxi sozialaren kontra. Betikotasunaren izenean berriz ere; kasualitatea, norberaren haurtzaroraino heltzen den opari bibliko aldagaitza. Integrismo alarde bat. Amarekin egiten nuen nire euskara hartatik harago, zer? Kaosa, herri-nahasleen mintzoa eta mundu(7)..... Horra 163 urteko zokoratzearen teoria politikoa, ahots zilarrez kantatua.

- | | | |
|---|---|--|
| <p>0)</p> <p>a) aldarrikapenaren</p> <p>b) esandakoaren</p> <p>c) eztabaidaren</p> | <p>3)</p> <p>a) euskaraz</p> <p>b) gazteleraz</p> <p>c) ingelesez</p> | <p>6)</p> <p>a) bermea</p> <p>b) bizitza</p> <p>c) oinazea</p> |
| <p>1)</p> <p>a) animatu</p> <p>b) mintzatu</p> <p>c) oldartu</p> | <p>4)</p> <p>a) malkoren</p> <p>b) oihuren</p> <p>c) oilarren</p> | <p>7)</p> <p>a) krudela</p> <p>b) latza</p> <p>c) ulergaitza</p> |
| <p>2)</p> <p>a) derrigorrezkoa</p> <p>b) ergelkeria</p> <p>c) ohitura</p> | <p>5)</p> <p>a) ulertu</p> <p>b) entzun</p> <p>c) erabili</p> | |

ERANTZUN ORRIA

TAREA 1	Jarraian elkarrizketa bat irakurriko duzu. Parekatu galderak eta erantzunak.	7x1	/7 puntu
----------------	---	-----	-----------------

0	1	2	3	4	5	6	7
D	H	E	C	F	B	G	A

TAREA 2	Testu honetan hainbat hitz kendu dira. Txertatu hitzak dagokion tokian. Bi sobera daude.	12x0,5	/6 puntu
----------------	--	--------	-----------------

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
B	M	L	J	K	O	F	I	C	D	A	N	H

SOBERAN: E,G

TAREA 3	BETIKOA. Ondorengo testutik hainbat hitz kendu ditugu. Irakurri testua eta aukeran ematen zaizkizun hitzetatik bat aukeratu. Zure aukerak erantzun orrira pasa behar dituzu.	7x1	/7 puntu
----------------	--	-----	-----------------

0	1	2	3	4	5	6	7
C	B	B	A	A	A	A	A

COMPRENSIÓN DE TEXTOS ORALES

P
R
U
E
B
A

Apellidos:

Nombre:

DNI / NIE:

Señale lo que corresponda:

Alumno/a **LIBRE** / **OFICIAL**:

Grupo / Profesor:

D
E

INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE ESTA ACTIVIDAD

C
E
R
T
I
F
I
C
A
C
I
Ó
N

- Duración: **máximo 40 minutos**.
- Apague su **teléfono móvil**.
- Sólo se admiten respuestas escritas con **bolígrafo azul o negro**.
- Cada tarea se escuchará **dos veces**.
- Para cada una, el procedimiento será el siguiente:
 - **dos minutos** para leer el enunciado y la tarea
 - **primera escucha** del documento
 - **un minuto** para responder
 - **segunda escucha** del documento
 - **dos minutos** para revisar las respuestas y anotarlas en la **hoja de respuestas** (reverso de esta página)
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

PUNTUACIÓN TOTAL : / 20

HOJA DE RESPUESTAS

TAREA 1	ELHUYAR ALDIZKARIA. Elkarrizketa bat entzungo duzu. Ondorengo esaldiak Egia ala Gezurra diren adierazi. 7x1	/7puntu
----------------	--	----------------

		E/G	
0	<i>Iraila hilabete ona da aldizkariak kioskoan lortzeko.</i>	E	✓
1	Elhuyar aldizkaria sendotu egin da baina garestia da.		
2	Iritzi artikulua luzatu egin dira sakontasunean irabazteko.		
3	Analisis sailean bi adituren artean artikulua idazten dute.		
4	Elhuyarkoei ez zaie gustatzen jendeari kasu egitea.		
5	Elhuyar aldizkaria, gaur egun, hobea da jende gehiagok idazten duelako.		
6	Arantxa Aranburuk hainbat tokitan lan egin du.		
7	Bizi garen tokiak ez dauka eraginik gudan.		

TAREA 2	GAZTETXOEN DIZIPLINA. Erantzun galdera hauek erantzun zuzena aukeratuz.	7x1/7 puntu
----------------	---	-----	---------------

- 0) Zeri buruz hitz egingo dute Amaraunean irratsaioan?
- Diziplinari buruz.**
 - Hauteskundeei buruz.
 - Koronabirusari buruz.
- 1) Gurasu mota ezberdinak daude. Zein da egokiena?
- Diziplina gutxi jartzen dutenak.
 - Emozio aldetik ulerkorrak direnak.
 - Gazteekin zorrotzak diren gurasoak.
- 2) Gazteek muga batzuk behar dituzte?
- Bide zuzenetik joan ahal izateko.
 - Etxeko giroa jasangarria izateko.
 - Lagunekiko harremanak kudeatzeko.
- 3) Mugak jartzeko...
- Beharrezkoa da seme-alabak ados egotea.
 - Ez da asko hitz egin behar.
 - Gurasoen arteko adostasuna behar da.
- 4) Arauak apurtzen direnean...
- Ez dute onartuko aitzakiarik jarri gabe.
 - Garbi dago zein zigor bete behar duten.
 - Gazteek berehala onartzen dute eta zigorra betetzen dute.
- 5) Gurasoek noiz mantendu behar dute tinko?
- Egoera guztietan mantendu behar dute tinko.
 - Egoerara moldatzen jakin behar dute.
 - Zenbait gauza negoziatu egin behar dira.
- 6) Zer esaten da errespetu faltei buruz?
- Batzuetan eman egiten dira.
 - Ez dira egoeraren arabera onartu behar.
 - Onargarriak izan daitezke.
- 7) Zer egin behar da errespetu falta dagoenen?
- Gaztea gehien minduko duena bilatu behar dugu.
 - Internetik gabe uztea zigor egokia da.
 - Ondo aztertu behar da zer egin dezakegun.

0	1	2	3	4	5	6	7
A							
✓							

HOJA DE RESPUESTAS

TAREA 1	ELHUYAR ALDIZKARIA. Elkarrizketa bat entzungo duzu. Ondorengo esaldiak Egia ala Gezurra diren adierazi. 7x1	/7puntu
----------------	--	----------------

		E/G	
0	<i>Iraila hilabete ona da .aldizkariak kioskoan lortzeko.</i>	E	✓
1	Elhuyar aldizkaria sendotu egin da baina garestiagoa da.	G	
2	Iritzi artikuluak luzatu egin dira sakontasunean irabazteko.	E	
3	Analisia sailean bi adituren artean artikulu bat idazten dute.	G	
4	Elhuyarkoei ez zaie gustatzen jendeari kasu egitea.	G	
5	Elhuyar aldizkaria, gaur egun, hobea da jende gehiagok idazten duelako.	E	
6	Arantxa Aranburuk hainbat tokitan lan egin du..	E	
7	Bizi garen tokiak ez dauka eraginik gudan.	G	

**P
R
U
E
B
A

D**

MEDIACIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

Apellidos:

Nombre:

DNI / NIE:

Señale lo que corresponda:

Alumno/a **LIBRE / OFICIAL:**

Grupo / Profesor:

E
C
E
R
T
I
F
I
C
A
C
I
Ó
N

INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE ESTA ACTIVIDAD

- Duración: **40 minutos**.
- Debe escribir con **bolígrafo azul o negro**.
- Apague su **teléfono móvil**.
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

PUNTUACIÓN TOTAL: /10

Txakurrak haurdun daudenen osasuna zaintzen du

Txakurrak, haurdunaldian zehar, beharrezkoak diren 30 minutuak behar bezala egiten laguntzen du eta etorkizuneko amek gizentasun arriskua arintzen dute

EVA SAN MARTIN

CONSUMER (moldatua).

Txakurra da gizon eta emakumeen lagunik onena. Txakurrak haurdunaldian gehiegizko pisa murrizten duen ohitura osasungarria egiten laguntzen die haurdunei. Animaliairen onurak haurra jaiotzen denean zabaltzen dira: txakurrek haurra osasuntsuagoa izatea lortzen dute.

OCTUBRE 2020

Zientzialariek egiaztatu dutenez, txakurra aliatu garrantzitsua da haurtxo bat itxaroten de-
nean: haurdunen ariketa fisikoa errazten du, eta, ondorioz, haurdunaldian gehiegizko pisua edo
obesitatea izateko arriskua murrizten du.

Txakur batekin bizi eta haurdun daudenek era ohikoagoan paseatzen dute. Liverpooleko
Unibertsitateko Carri Westgarth doktoreak dioenez, “astean batez beste gomendatutako 150 mi-
nutuko jarduera fisikoa egiten laguntzen die”. Txakur batekin bizi diren haurdunek gehiegizko pi-
sua izateko arriskua gutxitzen dute. Westgarthek 11.000 haurdunetan txakurrekin bizitzearen onu-
rak aztertu ditu. Zein da ondorioa? Txakurren zaleek %50 aukera gehiago dituzte egunero 20 eta
30 minutu bitarteko ariketak egiteko, espezialistek aholkatzen dizkietenak eta gehiegizko pisua
izateko arriskua murrizteko. Ikerketa honen emaitzak aldizkari ospetsu batean argitaratu dira, eta
sarrera librekoak dira.

Txakurrak haurdunaldian gehiegizko pisua saihesten laguntzen du. Aire zabaleko ibilaldiak
ariketa osasungarria dira haurdunaldian. “Txakurrak emakumeak motibatzen ditu paseora atera
daitezen, baita haurdunaldian ere, eta horrela beren egoeran behar duten jarduera fisikoa egiten
laguntzen diete”, dio Westgarthek. Txakurrarekin egindako irteera horiek bultzatuta, haurdun dau-
den emakumeak beren pisuari eustera bultzatzen dituzte. Hala, animalia batekin bizi diren haur-
dunek zailago izaten dute komeni baino gehiago jatea. Haurdunaldiko obesitateak areagotu egiten
du garaia baino lehen erditze goiztiarra izateko arriskua, baita haurra erditzean konplikazioak iza-
teko arriskua ere.

MEDIAZIOA. Zure lagun bat haurdun dago eta lehen hilabeteetan asko gizendu da.

Testuan oinarrituta, txakur batek haurdunaldian dituen abantailak adierazi. 125 hitz 10 puntu

PRODUCCIÓN Y COPRODUCCIÓN DE TEXTOS ESCRITOS

Apellidos:

Nombre:

DNI / NIE:

Señale lo que corresponda:

Alumno/a **LIBRE / OFICIAL**:

Grupo / Profesor:

INSTRUCCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE ESTA ACTIVIDAD

- Duración: **75 minutos**.
- Debe realizar **LAS DOS** tareas.
- Escriba a continuación de los enunciados (ver reverso), **indicando el número de tarea**.
- Debe escribir con **bolígrafo azul o negro**.
- Apague su **teléfono móvil**.
- Al finalizar, entregue **todas las hojas** utilizadas.

PUNTUACIÓN TOTAL: /20

1.- IRITZI ARTIKULUA (200 hitz): lazko ikasturtea ohi baino lehenago bukatu zen. Datorren ikasturtean iaz egin gabe geratu zena eta urteari dagokion materia eman ahal izateko, Hizkuntza Eskolako aldizkarian argitaratzeko iritzi artikulua bat idatz ezazu. 10 puntu)

2.- GUTUN INFORMALA (130 hitz):
Aurten, lana dela eta, oraindik ez duzu oportunitate hartu.
Idatz iezaiozu zure lagun bati elkarrekin oportunitate joateko proposamen bat eginez. 10 puntu



PRUEBA DE CERTIFICACIÓN-BLOQUE B

MEDIACIÓN DE TEXTOS ORALES

- Zure lagun batek arazoak ditu etxea txukun mantantzeko. Egunkarian irakurri duzun testu honetan hainbat baliabide ematen dira horretarako. Azal iezaiozu zure lagunari zer egin behar duen etxea txukun izateko eta bere bizimodua antolatzeke.

ETXEA TXUKUNTZEAZ HARATAGO BIZIMODUA ANTOLATZEKO METODOA

Etxean pilatzen diren arropa, liburu eta gainerako objektuen artean garbiketa egin, eta benetan behar dugunarekin geratzen ikasteak eragina du gure bizimoduan. Txukuntze-prozesu hori egitea, ordea, ez da batere erraza izaten, eta zeregin horretan laguntzeko *Konmari* metodoa erabiltzea izan daiteke irtenbidea. Duela urte batzuk egin zen ezagun metodo hori: etxea nola garbitu eta gauzak nola antolatu azaltzen duen teknika. Marie Kondo japoniarra da sortzailea, ordenan aditua eta idazlea. *Konmari* metodoari buruzko liburua idatzi zuen 2011. urtean, eta argitaratu zuenetik 30 hizkuntzatarara itzuli dute. Horregatik da ospetsua munduko txoko guztietan.

Amaia Elias barne-diseinatzaile azkoitiarra japoniarrak Londresen emandako hiru eguneko ikastaro batean izan da. “Etxea antolatzeke prozesua sortu du Mariek: gauza errazenetatik hasita, zailenetaraino aukeraketa bat egitea da helburua”. Amaiak berak egin du prozesua eta bere bezeroei ere horretan laguntzen die. Etxean sobera ditugun gauzak botatzeko, hainbat fasetako prozesua egiteko dio *Konmari* metodoak. Horretarako, objektu bakoitza esku artean dugunean, zorientasuna ematen digun edo ez galdetu behar diogu geure buruari.

Arroparen ostean, liburuen txanda da: “Ez dugu kopuru jakin bat gorde behar, zorientsu egiten gaituztenekin geratu behar dugu. Ondoren, etxeko paperena eta *komono* izena ematen zaion multzoarena egingo dugu. “Gainerako objektuak biltzen ditu *komono*ak: sukaldeko lapikoak edo komuneko makillajea, esaterako. Prozesua amaitzeko, artikulu sentimentalen artean aukeratu behar dugu: albumak, argazkiak eta guretzat balioa duten gauzak izaten dira. Zailena horixe da, nire ustez”.

PRODUCCIÓN DE TEXTOS ORALES (MONÓLOGO)

- Gaztaroa izango duzu mintzagai. Gaztetan lagunek zure jokabidean izan zuten garrantziaz arituko zara. Hauen aholkuek zentzuz jokatzera bultzatzen zintuzten ala zentzugabekeriak egitera bultzatzen zintuzten. Kontatu gaztetan egindako bihurrikeriaren bat.

COPRODUCCIÓN DE TEXTOS ORALES (DIÁLOGO)

a.- HIZKUNTZAK ESKOLAN gaiari buruz arituko zarete. Zure ustez, umeak txiki-txikitatik eleaniztasunaren bidean murgildu behar ditugu, kognitiboki ikasteko momenturik onenean daudelako eta dena abantailak direlako. Zenbat eta hizkuntza gehiago ikasi txikitan orduan eta argiagoak izango dira gure seme-alabak.

b.- HIZKUNTZAK ESKOLAN gaiari buruz arituko zarete. Zure ustez, umeek ama-hizkuntzan ikasi behar dute txikitan eta gero poliki-poliki beste hizkuntza batzuk sartu behar zaizkie. Ama hizkuntzan ikasitakoa hobeto geratzen da eta gurasoek ere laguntzeko aukera izango dute.